

171. FITXA Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeentzako dirulaguntzak

Nori zuzendua: Toki-erakundeak, tokiko sektore publikoko nortasun juridiko propioa duten erakundeak, tokiko garapen agentziak eta udalaz gaindiko sozietate publikoak (lurzoruen lerroan)

Sarbide-esteka: [2025. Lurzorua berreskuratzea - Toki-erakundeei zuzendutako diru-laguntzak - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2025eko irailaren 9koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, zeinaren bidez garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei dirulaguntzak emateko oinarriak ezarri eta deialdia egiten baita](#)

Eremuak: Garapen jasangarria

Zenbatekoa: 2.619.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/23

Laburpena

Dirulaguntza hauek **garapen jasangarria sustatzeko ekintzak** egiten dituzten erakunde hauei zuzenduta daude: Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, mankomunitateei, kontzejuei eta udalerrria baino lurralde eremu txikiagoko beste edozein toki-erakunderi, kuadrillei, eskualdeei, toki-erakunde autonomoei, tokiko garapen agentziei, tokiko merkataritza sozietateei, tokiko enpresa-erakunde publikoei, tokiko partzuergoei eta fundazio publikoei.

Jarduera-lerroak

- Lurzoruaren babesa.** Lurzoruaren kutsadura prebenitzeko, ikertzeko eta berreskuratzekeo ekintzak.
- Klima-aldaketa.** Klima-aldaketa arintzeko (berotegi-efektuko gasen emisio garbiak murriztea), CO2 xurgatzeko eta egokitzeko ekintzak (plangintza eta ekintzak), Euskal Autonomia Erkidegoan klima-aldaketaren ondorioak murrizteko.
- Ondare naturala.** Euskal Autonomia Erkidegoko dibertsitate biologiko eta geologikoa kontserbatzen, lehengoratzten edo hobetzen laguntzeko ekintzak.

- d) **Hondakinen kudeaketa eta balorizazioa.** Hondakinen kudeaketa arduratsua sustatuko duten ekintzak, oinarritzat hartuta prebentzioa, gaikako bilketa hobetzea, berrerabileraren sustapena eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako lege eta ingurumen-baldintzak betetzea.
- e) **Lurzoruaeren tokiko kudeaketa.** Lehentasunezko esparruetan berrikuntza eta erakustaldiko proiektu pilotuak garatzea, transferigarriak izan daitezkeenak eta ingurumen-inpaktuak murriztea dakartenak.
- f) **Jasangarritasunerako hezkuntza.** Tokiko 2030 Agendaren eta Eskolako 2030 Agendaren arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak eta horien esparruan ingurumenari buruz sentsibilizatzeko jarduerak.
- g) **Asteklima 2025.** Klima-aldaketaren arloan herritarrak ekintzara mobilizatzeko jarduerak.